

## AREN ALHADYRAZ. 423

## §. 2.

**E**Zta concientcia gaixtoa beçain gauça gaixtoric eta erragarric: bera da açoteric eta boreroric asco. Hala erraitendu San Agustinec Iaincorequin mintçodela, *In fidi* Aug. lib. vi  
*anim & sic est, ut poena sua, sibi sit, omnis inordi-* confel. cap.  
*natus animus.* Manatu cenduen eta hala da: 12.  
concientcia defordenatua, bera da, bere buruarentçat, pena eta gaztigu.

Ezta vhareric eta ez vholderic, lurra halalarrutcen eta arrobatcen duenic: ezta pipiric, çura hala defeguiten eta çuhirincen duenic: ezta cedenic vrdaia hala bohatcen eta iaten duenic: ezta cerrenic oihala hala eta hain guisa gaizqui bilhatcen duenic, eta ezharic haragua hala galtcen eta gattacen duenic; nola concientcia gaixtoac, eguiten baitu, bere burua.

¶ Harra da, concientcian barrena, dagoen beccatua, eta harrac beçala, gau eta egun, autfiquitcen du, iaten du latrutcen du. Eta haia da gosse, ecen ezpaita behin ere affetcen eta ez, autfiquitcetic, eta bere faltén, gogora ec cartcetic, guelditcen.

Erregue Dauitec bertceren emaztearequin hutz eguin çuenean, anhitz enfeiu eta itçul-inguru eguin çuen, huts hura estali nahiz. Eta ez, ez, ceren nehoen yeldur, cen-

## 424. CONCIENCIA GAIXTO

Erregue cenaz gueroz. Baina ceren ezpait-  
çuen bere concientciac sofegat. era vtzten.

Concientciac, ez Aita lainduri, ez Empera-  
doreri, ez Erregueil, eta ez inunduâ den bert-  
ce prelunar, ebriaçaiõ barcca. Eta haus guz-  
tior eguiten du gure probetçhÿa gatic, becca-  
tutan lohacâr ezcatecin gatic. Gueure aita  
propiozç baiño, maite ago gaitu gueure con-  
cientciac. Aita batec, bere semea, behin, bia-  
tan, hirureran edo hamarretan, mehatchatu  
duenean, iccusten badu eztela cençatcen eta  
ez emendatcen, vtzten du, etficen du. Baiña  
ez concientcia, eztu behin ere vtzten, eta ez  
etficen.

Vide  
Chryfost.  
conçio 4  
de Lafaro.  
tom. 2.

Guerla handia eguiten deracu gueure con-  
cientciac, eta guerla hunec appur bat ere, gui-  
belatcen gaitu, beccatu eguitecic, bertcela  
eguinluque gureac. Hala erraitendu san

Chryfost.  
vbi supra.

Crisostomoc. *Conscientia increpatis sacra est  
anchora, non firmis, nos tandem, in peccatorum de-  
mersi profundum.* Concientciaren crançu-  
tea era meharchua, aingura da, eta aingura ere  
saindua eta sacratua, beccaruen hondarcean  
erortecic, eta han ithotecic beguiratcen gai-  
tuena.

## §. 3.

**O**Rdes differentcia handia da, conclen-  
cien aitean, anhitz doha, batec bert-  
ceca.

## AREN AHMADYRAZ. 423

cera. Conciencia barçuc dira erne; senticor, min-bera, nerisi eta beçriz berçeç barçuc, oti, hil, laço, çabal eça ez antzia. Çapata bat du çunen, neurri, iustia, dbi; ecin paira deça queçu barenean, den legartie etipiena: baina çapata baquetæcc handi çabalac; ezçira hain perilos; hec badute leccu franco, oña guti min beraturic, ez legartaren, baina harrizcoen ere eduquitceco.

Bada diferencia haur berorda, conciencia onaren, eta gaixtoaren artean ere. Conciencia onac, iustuac; ecin paira deçaque beccatu venial bat ere, baina gaixtoac, jaçoac, ez tu mortalez ere comuric egitén. *Multi per minimas iniquitates non sentunt peccati conscientiam.* Anhitzeç ere, beccatu eguin hutsé bothe rez, ez tate bere concienciaç beccatua sentitcen. Eta haur da Spiritu Sainduac ere diotena. *Impius enim profundum malorum venter contemnit.* Gaixtoac beccatuen holinean barena sarthuz guero, gaitcen du sentimendus, ez tu antziaric. *Prae mentis est, vulnus sentire peccati, nam qui expertes doloris sunt, non sentiunt vulneris acerbicatem; quod est immedicabilis agriudinis.* Seiñale ona da, beccatuaren çauraren sentitcea, eta gaixtoa ez sentitcea. Ueren sentimendus galduz guero, oinhaceac hillez guero, ezta senda gai, ezta senda quigon, eta ez midicuntçatan ibilkeaz probeturic. Haur da mundu huneçan beccato-

Ambros. lib. 3 de parad. cap. 1. tom. 2.

Prover. 18.

Ambros. in Psal. 50. tom. 2.

## 426 CONCIENCIA GAIXTO

reac ahalduqueyen miseriari handiena, estaturic perilosena eta egoitçariç gaixto ena, beccatuaren ez sentitcea. Halacoac conciençiareñ sainga guti adircendu, lo guti hargatic gaitcendu. Ordea ezta ez hura ere alde guttiz nartio gabe; den gaixto enari ere, noizic behin bedere alhateen çaica bere concientia. Geren San Chrisostomoc dioen beçala. *Neque enim in eius potestate sium est remittere.* Nahi ago badu ere ecin barçca deçaque concientiac. Hala emaitendu adicera San Ambrosioc ere. *Conscientia cum non habet loquendi usum, nescit tamen tenere silentium.* Concientiac minçatcen vsatua ezterlaric, eztaqui ala baina ichilic ere egoiten. Ceren campoan minçatcen ezpada ere, bai ordea minçatcenda barranean

Chryl. in  
Psal. 42.  
tom. 1.

Ambrosi. de  
pœnit. c. 1.  
tom. 4.

Concientia da behin ere lohacartcen ezten cerbitçari bat, marrantatcen edo erlasten ezten predicari bat, eta bethiere ontasunera ahal beçanbat eramaiten gaituen quidari bat. Eta etçaiçu pontu batez ere aidaratcen, behti darraicu, gorputzari itçala darraitcan beçala.

Eta eztago ez alferric ere, alha çaiçu, saingaz, eta erançutea dagocu. Beccatua eguin baiño lehen, eguitean, eta eguinez guero ere, craftendu, auilatcendu, accusatecendu. Eta guttiz ere beccatu eguin ondoan, isaiquitcenda, orduan atçartcenda, orduan dira cinac eta

## AREN ALHAFVRAZ.

427

minac, orduan dira ezproin colperic handie-  
nac. Ceren San Chriſtoſtomoc dioen beçala.  
*Sicut ebrius cum multum vino ingurgitat, multum  
ſentit a vino damnum, poſtea auſem ſentit: ita & pec-  
catum, donec conſummatur obtenebrat mentem. &  
quasi denſa nubes, ita mentem corrumpit. Deinde  
conſcientia inſurgit, & quous accuſatore mentem  
grauius arradit, monſtrans abſurdiſſimam peccati.*  
Nola hordiac arnoa ireſten duenean, ezpaitu  
ſentitcen, handic heldu çaicac calça : ceren  
goçataſun harc, edatean hartcen duen atfe-  
guinac, itſutcen baitio adimendua. Ordea gue-  
ro hordia ioan Daquionean, eçagutcen baitu  
bere falta eta deſohorea: hala beccatoreac ere,  
beccatua eguiten duenean, eztu ſentitcen eta  
ez iccuſten, handic heldu çaicac calça, ceren  
hartaco atſeguinaç eta placerac liluratcen bai-  
tu, hain liluratcen ecen ezpaita orduan gait-  
cez orhoitcen. Baiña guero iragan denean  
beccatua, iaiquitcenda concientcia, eta hain  
cinez accuſatcen eta liſcar eguiten haſten da,  
non iragan diren placer guztiez ahanteiric  
ibentcen baitu beccatorea.

Chryſoſt.  
Hom. 64 in  
cup. 42.  
Genef.

## §. 4.

**E**Rraitendu San Aguiſtinec, emazte gaix-  
toac, ithaiçurac, eta kheac atheratcen du-  
ten beçala guiçona bere ethetic : atherat-  
cen duela concientcia gaixtoac ere beccatorea

Vide Aug.  
in Pſal. 33.  
& in Pſal.  
100.

## 428 CONCIENCIA GAIXTO

bere sofegutic. Emazte gaixtoa , ithaiçura eta khea diren leccuan ezta placeric , ez eta concientcia gaixtoa duena baithan ere ontasunic. Beccatorea sar badadi bere concientcian barrena , bere hala hango kheac atheratcendu camporat , azpiratcendu tristurac.

Campoan etsaiac , perilac eta assalduac dituenac , laster eguiten du etchera , pausatcera , eta bere buruaren seguratcera. Ordea etchean ere etsaiac , atsecabeac , ithaiçura , khea eta emazte gaixtoa dituenac , cer eguinendu ? Non pausatucodu ? Cer consolamendu içanendu ? Campoan etsaiac , etchean guerla , non edirenendu baquea ? Non ? Bere barreneco gábaran , bere concientcian , han behar du pausatatu , han behar du consolatu eta bere burua arindu eta alegueratu. Ordea baldin bere barreneco gábara hartan ere , bere concientcian ere edirenten badu , etsaia , beccatuaren ithaiçura , khea eta erançutea , cer eguinendu orduan ? Noraco da ? Sarchuagatic bere barreneco gambaran , bere concientcian , ezteçaque pausuric ediren. Ceren han berean batcen baitçaica bere etsaia , eta etsairic gaixtoena etche barrécoada.

*Hostem suum inuevit , quo confugerat.* Etsaiaren ihesi dabillala , eguitendu etsaiarequin incontru. Beraz guehien bazterretaric hartua da halacoa , alde guztietaric atrapatua da. Ceren bere burua ere etsai baitu , eta berac , bere ganic ecin baitaidique ihesic. Arraçoiñequin etrai-

August. in  
Psal. 45.

## AREN ALHADYRAZ. 439

tendu San Agustinec. *Nulla poena grauior  
quam mala conscientia, in qua cum non habetur  
Deus, consolatio non inuenitur.* Ezta concient-  
cia gairtoaren eguitecoac eta penac baiño, pe-  
na handi agoric. Ceren nola ezpaita laincoa  
han egoiten, ez eta, ezta, consolamenduric ere  
edireiten.

Aug Cent.  
191 tom. 3.

Eri den presunac, barranean minduenac, a-  
hal daidique dembora appur batez, campoan  
eta iendartean aleguera iduri, ordea guti hala  
iraun, bere hala bere barreneco gaitzac, go-  
goeran ibentcendu, tristetcendu. Hala tristet-  
cendu bada beccatutan dagoena ere, bere con-  
cientciac, bere barreneco eritalunac. *Vides  
conuuiuium peccatoris, interroga eius conscientiam,  
nonne grauius omnibus facies sepulchris? Iccusten  
duçu beccatutan dagoenaren gonbitea, ian e-  
dana, bonbacia eta banquecia, baitirudi ecen  
han dela parabisua, ezteela cer guehi ago desi-  
ra. Ordea baldin galdeguiten badioçu, ea nola  
diho acon bere barren hartan, bere concient-  
cian, erranen deratçu gaizqui dela, narda garri  
dela, sepultura quiratsac baiño, quirats ago  
dela. *Impij quasi mare feruent, quod quiescere non  
potest.* Gairtoac itlas irakuitua beçala dira, ez-  
tute baqueric eta ez sofegutic: hequen holec,  
rhinec, baqueac eta tormentec, hanbar badira,  
ecen, gairiez eguiten baitote. Eta badio Salo-  
monec ere. *Pracordia fatui quasi rota carri.*  
Gairtoaren concientcia eta barren aldeac, or-*

Ambros.  
lib. 1. offic.  
c. 12. to. 5.

## 430 CONCIENCIA GAIXTO

garen edo gurdiaren arroda beçala dira. Gurdi carginuac badarafa, badirudi bere carga handia ecin iafanez, arren curatcen dela: hala arrencuratcenda bada beccatorearen conciecia ere, bere beccatuen carga era pisutasuna ecin iafanez: hanc neccatcendu, hanc çapatcendu, hanc bere soinuaz, habarrotsaz eta crasteaz tristecen, eta penatcendu.

Egun batez ioan cituen Philospho batec çapata batçuc, bere etchera, prometatutic çapata guilleari, dembora gutiren barranean pagatuco ceratçala. Eta abiatucen bere hitzean, eta epean pagamenduaten eguitera. Baiña ençunic ecen hiltçela, diruac behar cituen çapataguina, bihurtucen alegueraric bere diruequin etcherat, iduritutic ecen haibertçez quito cela: eta eduqui cituen cenbait demboraz diruac berequin. Ordea birtarte hartan hain iaten eta erratcen çuen bere baitan barrera bere concieciac, ecen ecin paçtatuz, ioan baitcen bere diruac harturic, çapataguinaren etchera; eta han egotci cituen, erraiten çuela, çapataguinarequin berarequin mintço içan bailliz beçala. *Illo tibi vinio, redde quod debes.* Bertce guztientçat hil bahaiz ere, oratiño bici aiz ençat. Thotcic bada har itçac heure çapatcen diruac, eta vtçtac niri baquea. Descargua eguin arteiño, etçuen vtci bere concieciac solegatçera, an asteratiño bethi eman cioen garri eta nario,

Senec. lib.  
7 de bene-  
fic. cap. 21.



## AREN ALHADVRAZ. 431

Ezta egungo egunean, mundua huncin searicor, eta ez concientciatsü.

## §. 5.

**G**Aixtoa, bertze etsairic gabe, bere concientciac berac, bere baithan barrera, açotacendu, autsiquitcendu, çaurtcendu, lartucen, eta penatcendu. Iragan denean beccatuaren placera, han da bere hala concientciaren desplacera. Beccatua, çauri hatz-guillea beçala da. Hatz eguitean atseguin hartcen duçu. Ordea hatz gordin eguinic, guelditeç çaitçu, ondotic erralumina: Hala guelditecenda bada, beccatuaren placera iragan denean ere, concientciaren mina eta oihacea Succat handiarequin çaudenean ere, atseguin hartcen duçu vrhorz aren edateaz, ordea guero edan ondoan, çaitça berreturic, içaiten duçu atseguin haren atsewabea. Haur da fruitu ondu gabén ondorea, horzqui dura figuintça.

Garcelean dagoenari, emoçu, nahi duen beçanbat iatera eta edatera, eguiço ahal daguicun besta guztia, baiña ezta hargatic osloqui alegueratcen. Ceren ezpaitaqui ceri dagoçan, Alegueraqui ago bicida, aitez aihè dabillan errumefa. Ceren San Chrysostomoc dioen beçala. *Supplicij expectatio non sinit presentium voluptatum sensum capere.* Garcelean dagoena, ez tu vtzen, gueroço gatziguatè veldurrac, atse-

Chrysol.  
Hony 12. in  
c. 7. Roma  
tom. 4.

## 432. CONCIENCIA GAIXTO

guin hartcera, eta ez escuen artean dütuen pla-  
cer appurren goçatcera.

Vrccabera condenaturic dagoena, aicinetie  
penatcenda, vrccabraz orhoicē den guzciaz,  
vrccatcē beçala da. Hala da bada concientcia  
gaixtoa duena ere. Halacoa noiz eta hasten  
baita bere gogarenic, bere lagunequin atse-  
guin hartcen, orduan berean orho. tcenda bere  
beccatuez orduan berean alhatcen çaica bere  
concientcia: halaco fuertez, ecen ez paita posi-  
ble beccatutan dagoenac, hala dagocino, atse-  
guin da fun oforic ahal duquoyan.

Halacoac, perillie ez tuenean ere, vste du peril  
duela. Eta hala iccuffico duçu anhitzetan ere,  
ohoiñac edo guizon hilçailac sentitcen du-  
encā iusticia, bere hala bera bere buruz, nehor  
orhoitcen ez tela, bere concientciac accusatu-  
ric, ih. si itçal gaizca abiatcendela: eta handie  
nabar benduric gaizquiere helteen dela.

Gaixtoac vstedu ecen hartçaz orhoitcen ez-  
tirenean ere, hartçaz mintço direla. Caixtoa  
bethi da guibel veldurti, eta gogan behartfu.

Gau ilhunean baccatic dohana, deusen pe-  
rillie ez içan agatic ere, latzda, veldur da, ici,  
eta iccara da: Hala da bada gaixtoa erē, deu-  
sen perillie ex içan agatic ere bere concient-  
ciac accusaturic latz, ici; iccara eta veldur.

Vrdeac, bertce abrec eguiten ez tutena, ora-  
iño minic hartu gabe, vquitceaz beraz eguitē-  
qu martalca. Ceren nola ez partu deuserē on

## ALHA DYRAZ.

433

den gauçaric, bere vrdaia baicen, ez illeric, ez lumaric, ez larruric, eta ez berice gauçaric, bere içanez, eta naturaz da veldur, harteen dutenean, biçjaren edequitceco harteen duten : Hala bada concientcia gaxtoa duenez ere, lehenbico aldi gaitzean, den buruco minic tripienean, da veldur hil dadin, bicia edequi diaçoten. Ceren ezpaitu deus ere deus valio duen gauçaric, bere bicia baicen, eta hura galduz guero; penatu behar baitu.

## f. 6.

**E**Rraitendu Iob guicõn faindu hare. *Sonus* Iob. 19.  
*terroris semper in auribus eius, & cum pax sit, ille insidias suspicatur.* Gaxtoari bethi dagoca bere beharrietan, veldurtafunaren soimua, concientciaren latztafunaa, eta assaldua: eta baquean denean ere, vste du guerlan dela, eta orduan ere arapatu nahiz, celatan dagotçala. Haur da are mundu hunetan ere, bertce munducoaz garñera, gaxtoaren gaxtigua, veldurtafunaa, seguratçaric gabe, icibiliteca. Gaxtigu hunetçaz, mehatchatu cituen, gure laincoac, bere manamendnen hautfalleac; eraiten cerauela. *Quod si non audieritis me, nec feceritis omnia mandata mea, fugietis nemine persequente.* Leuit. 26. Baldin ençuten ezpanaue, eta ene

## 434 CONCIENCIA GAIXTOAREN

manamendu guztiac complitcen ezpaitut-  
 çue, iaquiçue ecen, nehoren peril gabe, eta  
 nehor iarraiqui gabe, emanen dioçuela ihe-  
 sari, eta iccara handi bat eguinen çaitçuela.  
 Hala eguin cëican iccara handia Caini, bere  
 anaia Abel hil çuenean. Abiaucen Cain  
 mundutic ihesi, erraiten çuela. *Omnis igitur*  
*qui inuenit me occidet me.* Eguindu eneac,  
 ezta escapatceric, ediren naçan guztiac  
 hillen nau: Cerdioçu Cain? Noren çara  
 veldur? Note hillen çaitu? Ez Adanec ez  
 Euac. Ceren horiet çure aita-amac dira, eta  
 oraiño ezta munduan bertceric. Noren çara  
 bada veldur? Ez nehoren bertceren: ceure  
 buruaren, ceure concientciaren. Ceren con-  
 cientcia bera, bertce etsairic gabe, da as-  
 co, veldurrasun handiarequin erabiltceco.  
 Adanec beccatu eguin çuenean, eta sentitu  
 Iaincoac deitu nahi çuela, ihes eguin çuen,  
 gorde cen. Eta çergatic gorde cen. Oche cia-  
 quien cer nahi cioen Iaincoac? Bai baciaqui-  
 en, (dio san Agustinec.) Eta nondic cia-  
 quien? Bere concientciac errauic. *Neque*  
*alium oburgatorem habebat, et testem peccato-*  
*rum.* Etçuen bertce leccucoric, eta ez ac-  
 culatçailleric, bere concientcia baicen: bai-  
 ña hura çuen asco. Eta halatan, berac bere hu-  
 ruz, bere falta eçaguturic, era hobendun cels  
 nabarhenduric, estalgunea bilharu çuen.  
 Hargatic erraitendu san Isidoroc: *Nunquam*

Genes. 4.

August.  
 Hom. 17. in  
 cap. 1. Gen.  
 T. I.

## ALHADYRAZ.

439

*securus est reus animus, mens enim mala conscientia, propriis agitur stimulis.* Presuna hobenduria, saltatua, ezta behin ere segur, ceren bere concientiaren ezproinat bethiere colpeca hari baitçaitça. Portu hunen gainean erraitendu san Ambrosioc. *Da-* Ambros. serm. 2. in Daniel. T. 1.  
*mini autem traditorem non inuenio à iudice esse damnatum. Non enim damnat eum Pilatus, non damnat populus, sed quod gravior est, se ipsum condemnat.* Ezitut edireiten ecen Iudas, Iauuaré saltçaillea, nehore cōdenatu çuela, ez Pilatuses, ez herriac: eta ez bertceec: baitra, gainxo ago baita, edireiteudut, berac bere burua condenatu çuela. Ceren sententia guztien gaineco sententia, guztiaç chitcen, eta iragaiten dituen, bat bederac bere buruari, bere concientiac vençuturic, einaiten dioena da.

Eta hunetan da agueri, eztela antzia, nehore bertceec ez iaquin agatic ere çure falca, eta beccatua, baldin cerorrec badaquiçu concientia bera da leccucoric asco. Ezta harentçat golceoric, zoccoric, eta ez estalguneric. Ceren Senecac dioen beçala. *Quid prodest vecondere se et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam aduocat, mala autem in solitudine anxiosa est, atque sollicita. Si honesta sunt qua facis, omnes sciant, si autem turpia, quid prodest, neminem scire, cum tu scias?* Cer probertchu da gordetcea, eta ien den beguieric, eta

## 436 CONCIENCIA GAIXTOAREN.

beharrietaric ihes eguitea? Conciencia onac aguerrian, eta iendartean ibili nahi du, fida da han ere. Baiña gaixtoac, eztu nehon ere, segurantzaric edireiten, ez etchean, ez campoan, ez baccarric dagoenean, eta ez are compainiatan denean ere. Çure obrac onac, eta prestuac badira iaquin bitçate guztiec, baiña baldin gaixtoac, defohorezcoac, eta defohoragarriac badira, cer probetchu da, bertcéc ez iaquitea, baldin cerorrec badaquizquitçu? Cerori çara, çure conciencia da leccucoric segurena: bertce guztiec faltatu agatic harc ezteçaque falta, harc on eduquicodu, harc accusatuçodu, Hargatic erraitendu halaber Senecac.

Senec li de moribus.

*Nullum conscientiam peccatorum tuorum magis temeris, quam te ipsum: alium enim potest effugere, te autem nunquam nequitia enim ipsa est sui pena. Et çarela çure beccatuac daquiz quitenen, baten ere, hain veldur, nola ceure buruaren; ceren bertcètaric badaidiqueçu ihes, escapa çaitzque, baiña ez ceureganic. Ceren beccatua bera da, bere buruarençat pena, eta gaztigu.*

Iob. i.

Iob guiçon saindu hari guerthatu ceitçan, calte, galtce, eta fortuna gaixto guztietan, escapatcen cen bethi ere bat, auisatceco, eta berriaren eccartceco. *Ego euasi solus, ut nuntia-rem tibi. Halá escapatcenda bada beccatorea baithan ere conciencia, eta concienciaaren*

## ALHADYRAZ.

437

mandataria, eta erançutea, berri cecartceco, auifatceco, eta erraitceco, cenbat calte ethori qzican, eta cenbat ontafungaldu duen beccatuaren eguiteaz.

## 5. 7.

**C**onciencia ac anhitz officio du, bera da Calccate, bera da leccuco, bera da accusatçaille, eta deffendatçaille. Eta hain da fin, eta eguiati, ecen berac milla leccuco valio baititu. *Conscientia mille testes.* Hain da artez, iustu, eta leyal, non mundu guztiac ezpaiteçaque irabaz, ez corrompi, eta ez bertee aldera itçul. Ezta diruric, eta ez faboric: ezta laufenguric, eta ez mehatchuric: ezta aratecoric, eta ez adifquideric, conciencia bere eguiatic maccur deçaqueyenic. Pontu hunen gaiñean bethi beçala ederqui erraitendu san Crisostomo vtrezco mihi harc. *Externi iudices & pecuniis corrumpuntur, & assensationibus delinuntur, & metu simulant. At conscientia tribunal nulli hominum nouit cedere: sed quamuis dederis pecunias, quamuis mineris, quamuis aliud quoduis feceris, iustam ferres sententiam, aduersus peccatoris cogitationes, adeo, ut ipse quoque qui peccatum admisit, se ipsum condemnet, quamuis nullus alius condemnet.* Munduco gorthac audien-

Quintilia:

Chrysoft.  
concio. 4.  
de Lazaro.

## 438 CONCIENCIA GAIXTOAREN

dientciac, eta iusticiac nahasten dira, leccu-  
coec ueccatcen dute, notaria irabaztenda, al-  
catea diruz itsutenda, lausenguz, eta fabo-  
rez goernatcenda : eta handic anhitzetan  
ere, barranean çarela vste duçunean, cam-  
poan edireiten çara, irabaci vstea, galtcen  
duçu. Baiña concientciaren gorthean, eta au-  
dientcian ezta halaco bide gaberie egui-  
ten. Aitcitic bertee guztiee faltatu agatic,  
culpantac berac, concientciac berac ac-  
cusatcendu bere burua, eta bai condenatcen  
ere.

: Campoan eguin ahal ditezque, eguiaren  
contraco enseiuac, eta frogantça falsoac: fal-  
ta duenac ere vkga ahal deçaque, eta erran,  
eztuela faltarie, baiña hargatic, barren har-  
tan, bethiere concientcia bere eguien ego-  
nenda. Mintço direnec ahal daidiquete hurs,  
baiña ez concientciac : hari galdeguioçu, ha-  
requin mintça çaiteci, eta harc nor çaten er-  
ranen deratçu ; han miraillean beçala, çeure  
burua iccusficio duçu.

Eguiteco batec hartcen çaituenean, han  
da bere hala cõcientcia, eta egun daiño eguin  
ditutçun falta guztiee orhoitcen çaitu, guz-  
tiac gogora eccartcen derauzquitçu. Eta a-  
re erraiten deratçu, cenbait ceure beccatu  
gatic, hunelaco, eta halacogatic, hec guztia  
ethorri çaitz quitçula. Hala Iosephen anaiee  
Egiptora circnean, eta han eguitecotan Iarri